

Garaikoetxea: «EAJri emandako botoak Gobernu zentralari eusteko izan dira»

Kanpaina honetan «denbora asko alferrik galdu» dela iritzi dio EAko buruak

Eusko Alkartasunak kanpaina emandako azken prentsaurrekoan, Carlos Garaikoetxea alderdiko presidentea izan zuen hizlari. Abertzaleei gogotarako deia egin zien eta EAren koherentzia aipatu ondoren, azken urteotan EAJri emandako «'boto eraginkorra', Gobernu zentrala indartzeko» izan dela azaldu zuen.

Axun Erribengoa / Donostia

BAHITUTA dauden Jose Maria Aldaia eta Jose Antonio Ortigari erreferentzia eginez hasi zen Carlos Garaikoetxea. «Arrazoi politiko ilunen batengatik, pertsona hauek bahituta egon badira kanpainak iraun duen bitartean, kanpaina amaitzean hauen askatasuna ere gertatzea nahiko genuke», adierazi zuen Garaikoetxea.

Rafael Larreina alderdiko komunikazio arduraduna, eta Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako zerrendaburuak —Begoña Lasagabaster, Jasone Irarragorri eta Igone Martinez de Luna— izan ziren Garaikoetxearekin Donostian balantzea egiteko garaian.

Hautesle abertzaleei dei egin zien gogotarako Garaikoetxeak. Boto eraginkorraz hitz egin zuen, «EAJk askotan eskatu du, baina boto eraginkorra zertarako eta norentzako galdetu behar dugu». Eusko Alkartasunak beti koherentziaz jokatu duela esan ostean, azken urteotan «EAJri emandako boto eraginkor horiek PSOerentzako» izan direla gaineratu zuen. «Nazionalismoaren izenean eskatutako boto horiek Gobernu zentralari eusteko besterik ez dute balio izan», azaldu zuen EAko lehendakariak.



Carlos Garaikoetxea EAko presidentea, EAeko hautagaiekin agertu zen atzo prentsaurrekoan.

EDURNE KOCH

EAJk PSOeri emandako babesak, euskal gizarteari «aurrerakuntza gutxi ekarri dizkio» Garaikoetxearen irudikoz. EAren ustez, azken legegintzaldian denbora asko galdu da Euskal Herriaren bakebideratze prozesuan. Ekonomiarik dagokionez, EAJren hitzak ekarri zituen gogora Garaikoetxeak: «Eurek aitortu dute politika ekonomikoa negargarria izan dela». Autogobernuaren gaian ere, «azken zortzi urteetan ia erabateko lehorte izan ostean, hauteskundeen bezperan hainbat transferentzia iragartzeko oso susmagarria» jo zuen EAko buruak. Hala ere gai garrantzitsuetan ez dela aurrerapausorik eman esan zuen.

HBren kanpaina «testimonialismo hutsa» • Herri Batasunari buruz ere mintzatu zen Garaikoetxea. Alderdi honen inguruan banaketa argia egin zuen, «bakearen aldeko bidea edo indarkerian espirala indartzearena daude», eta HBk eta ENAMek azken bidea aukeratu dutela gaineratu zuen. HBren kanpaina «testimonialismo hutsa» izan dela azaldu zuen, izan ere «argi utzi dute ez dutela Madrilerako joateko asmorik, ez Kongresura, ez Senatura». EAk euskaldunen proposamenak toki guztietara eramane behar direla adierazi zuen.

Hauteskunde kanpaina honetan «denbora asko galdu» dela esan zuen Garaikoetxea, «eztabaidak biren edo hiruren artean

egin» behar ziren pentsatzen. Ildo honetatik, «alderdi politiko batzuek beste batzuek baino aukera gehiago» izan dituztela esan zuen EAko lehendakariak eta «defizit demokratikoa» aipatu zuen komunikabideei erreferentzia eginez. Espainiako telebista publikoak Gonzalez eta Aznar elkarrizketatu zituen eta Tele5 kanal pribatuak, berriz, «Arzalluzi pribilegiozko tartea» eman ziola iritzi dio Garaikoetxeak.

Begoña Lasagabasterrek kanpaina positiboa izan dela adierazi zuen. ERC alderdi kataluniarrekin izandako hartueman «ona» azpimarratu zuen. Partidu handiei gauza konkretuak planteatzeko eta egiteko eskatu zien Lasagabasterrek.

«Nafarroako abertzaleak mugiarazteko gai»

A.Unanue / Iruñea. - Nafarroako Eusko Alkartasunako zerrendaburuak pozik agertu ziren atzo, hauteskunde kanpaina hautesle abertzaleak ilusionatzea lortu dutelakoan. Hori dela eta, bihar ere Nafarroako abertzaleek EAren alde bozkatzeko espero duela adierazi zuen Begoña Errazti EAko Senaturako hautagaia.

Erraztiren irudiko, hauteskunde kanpaina ez da espero bezain polarizazio handia egon eta EAk ongi bereiztu du bere mezua, «bide tinko eta baketsuarena» alegia. «Hauteskunde hauek Nafarroako abertzaleen proiektu politikoa bultzatzeko balio izatea espero dugu. Aber-

tzaleak ilusionatu eta mugiarazi egin behar ditugu, Nafarroak behar bezalako ordezkariak izan ditzan. Jakina baita PPko eta PSOeko ordezkariak ezer gutxi egingo dutela Nafarroaren alde. Azken legegintzaldian ez zuten ezer egin eta hurrengoan ere ez dute besterik egingo», ohartarazi zuen Erraztik. Horrexegatik, EArentzat eskatu zuten botoa alderdi honetako kideak.

Senaturako zerrendaburuak Eusko Alkartasunaren aldeko botoa eskatu zien Nafarroako abertzaleei. Erraztiren iritziz, herrialde honetako nazionalistek ez dute bestelako aukerarik, «ENAMek erokeria baizik ez dakarrelako eta Nafarroan EAJrik ez da



Pello Yaben.

SIMAL

goelako».

Pello Yaben EAko Senaturako hautagaiak oso pobrea iritzi zion bart gauean amaitu den hauteskunde kanpainari. Berak eztabaida aberatsagoak espero zituela, baina azkenean «adierazpen hutsak eta polemika antzuak» besterik ez dituela aditu esan zuen Pello Yabenek. Adibide gisa, Rodriguez Ibarra, Rejon eta Javier Arenasen adierazpenak aipatu zituen Yabenek.

Azkenik, gogoeta egiteko eskatu zien EAko hautagaiak Nafarroako botoemalerei, gogoeta egiteko botoa alderdi abertzale bati edo abertzale ez den bati emateak ekar ditzakeen ondorioen inguruan. X

Zubimendi HBko parlamentarioak Euskal Herria utzi du

«Jasan duen jazarpen poliziala dela-eta»

Erredakzioa / Donostia

MIKEL ZUBIMENDI Herri Batasunako parlamentarioak Euskal Herria utzi du, azken hilabeteotan jasan duen «jazarpen poliziala» dela-eta. Hori jakinarazi du HBk prentsa ohar batean, zenbait komunikabidek Zubimendiri buruz kaleratu dituzten informazioen ondotik. «Jarrain izan duen militantzia ezaguna eta publikoaren ondorioz, Mikel Zubimendi militante abertzaleak atzetik izan ditu, etengabe, polizia espainiar eta baskongadoak», adierazi zuen HBk.

Zubimendik ezin zuela bizi-modu normala egin, ezta bere militantzia politikoa garatu ere azaldu du HBk. «Jazarpen poliziala ez zela amaituko, ezta arinduko ere ikusita, Euskal Herria uztea erabaki du Mikel Zubimendik eta bere konprometuz abertzaleekin gure mugetatik kanpora jarraitu», dio. Komunikabide batzuek atzo ziotenez, Danimarkara joatea erabaki du Zubimendik, «presio politiko, familiar eta sozialak eraginda». Zubimendi Gasteizko Legebiltzarreko parlamentarioa da, eta HBk ez du jakinarazi bere ordezkari jarriko duen.

Zubimendik hartutako erabakia dela eta, Arzalluzek atzo esan zuen «bizi zuen egoeratik» ihes egin nahi izan duela, «ezin zuelako buruzagitz sakon hori jasan». Juan Maria Jauregi Gipuzkoako gobernadore zibila azaldu zuenez, «bagenekien Zubimendik atzerrira aldegin nahi zuela». X

Barrionuevok ihes egiten lagundu ziola dio GALEko kide batek

Erredakzioa / Donostia

ISMAEL MIQUEL GUTIERREZ GALEko kideak salatu duenez, «Barne Ministerioko funtzionarioek» Espainiatik aldegin lagundu zioten. Horien artean, Ministerioko goi karguak ere bazeudela adierazi du. Francisco Alvarez, Borroka Antiterroristako Aginte Bakarreko burua aipatu du zehazki, baina «bere gainetik zuzendak» ere inplikatu ditu.

Ismael Miquelk Tailandiatik igorritako gutun batean dioenez, «Barne Ministerioak bultzatu ninduen hiltzera». Miquel GALEko komando bateko burua izateaz dago akusatuta. Komando horrek Robert Caplanne hil zuen 1985eko Gabonetan Miarritzen. Miquel GALEn «sare katalana» ezagutzera emateko prest dago, Alberto Salazar bere abokatuak Bartzelonan adierazi zuenez. X